

Bizi-pozaren txinparta iritsi da

Ostegun honetan eman zioten ofizialki hasiera aurtengo sagardoaren kanpainari, Julian Retegirekin

«SAGARDO BERRIA!», esan zuen Julian Retegik txiritik orduantxe betetako basoa gora altxatuz. Zeremonia xume horrekin aurkeztu zuten ostegunean Astigarragan 1997an upeletik zela botilatik jendeak edango duen sagardoa.

Txotx denboraldiaren hasierarekin batera, Astigarraga inguruko sagardogileek sagardo berria aurkezten dute. Lau urte dira Sagardo Berriaren Egunaren bidez egiten dela urteko sagardoaren aurkezpen ofizial hau. Urtero bezala, San Sebastian inguruan, pertsona ospetsu bat ekartzen dute lan hori betetzera. Aurreko urteetan Andoni Egañak, Jose Mari Bakerok eta Javier Clementek bete dute lan hori, eta aurten Julian Retegi Eratsungo pilotariari egokitu zaio.

Sagardo ekotzile, sagardoazale eta kazetari ugari bildu zen aurkezlearen inguruan Astigarragako Petritegi sagardotegiko upel artean. Txalaparta doinuen ondoren, aurreku batez agurtu zuten pilotaria, eta ondoren, upel bateko txiria zabaldu, eta basoa sagardoz bete zuen. «Sagardo berria!». Horrelaxe, bi hitzekin, egin zuen aurkezpena 11 urtetan Euskal Herriko banakako txalpelduna izan denak. Gerxeago adierazi zuen Retegik urduri ibili zela, antolatzaileei gonbidapena eskertzearekin batera. Sagardoa gustuko duela azaldu zuen, «dateko erraza da eta gutxi eragiten du», nahiz eta oso-oso zalea ez zela esan zuen. Andoni Egañak bertso batekin eman zion bukarrera zeremoniatxoari: «Edari honek poz ematen du, ez da bentaja txikia, izan bedi lagun artean gozatzeko aitzakia». Han bildutako guztiek bazkarian izan zuten txotx egiteko aukera, bakailao tortila, txuletak, gazta eta intxaurrak bultzatzeko.

Aurretik, Astigarragako udal-etxean bildu ziren sagardogile eta agintariak. Gipuzkoako sagar kopuruaren hazkundera nabarmendu zuten batik bat.

Iritsi da, beraz, sagardo berria. Eta txotx denboraldia ere bai. Gero eta estimatuagoa den mama goxoa dastatzeko garaia. Hiru hilabetez sagardotegiek jendez gainezka egingo dute. Hamaika jarriko dira bizi-bizi upel artean. Ohitura zaharrak gorde egin behar omen dira, eta onak badira are gehiago. X



Julian Retegi pilotariak zabaldu zuen aurtengo txotxeko sasola Astigarragan. Eta gustura eman zion denboraldiko aurreneko tragoxka ofiziala.
JAGOBA MANTEROLA



ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • BASERRIA

- SAGARDO GARAIAN TXOTXETIK
- URTE OSOAN, GOSARI, BAZKARI ETA AFARIAK

Oztaran Bakara Tf.: 55 69 81

